

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 62. alea

DATA: 2026/01/30

GUREAN

HERRI AMETSA TALAIA

Aurtengoa zortzigarren edizioa izango da. Igande honetan, eguraldiak uzten baldin badigu, 300 korrikalari elkartuko dira gure ikastolan. Hiru ibilbide egingo dira: mendi krosa, mendi martxa familiarra eta kros txikia. Ekimen hau naturaz eta kirolaz gozatzeko prest dauden guztientzat bideratuta dago. Mendi krosean 15,1 km egingo dituzte korrikalariak Ulian zehar eta desnibel positiboa 720m-koa izango da. Ibilbidea eta kilometroak behar bezala seinaleztatuta egongo dira, kartelen bidez. Mendi martxa familiarrak, Ikastolatik hasita eta Ulia ekialdean zehar, 3,7Km-ko ibilbidea izango du eta kros txikian gure ikasleek hartu dute parte. Herritarrek ingurua, kirola eta euskara uztartuz gozatzea da ekintza horien helburua.



GURE INGURUAN

ZUHAITZ AZOKA

NOIZ: URTARRILAK 31

NON: TOLOSA



Urteko lehen azoka berezia ospatuko da larunbatean, hilak 31, Tolosan: Zuhaitz Azoka. 30. edizioa izango da aurtengoa, eta bederatzi postu izango ditu.

Trianguloa plazan kokatuko dira guztiak, 09:00etatik 14:00etara bitarte. Postuetako zazpi mintegien salmenta-postuak izango dira: zuhaitzak, zuhaixkak, haziak, landareak eta loreak erosteko aukera izango da. Gipuzkoako Baso elkarteak informazioa emateko beste postu bat jarriko du.

BAZENEKITEN?

HERRI AMETSA TALAIAN 70 BOLUNTARIOK HARTUKO DUTELA PARTE?

Ikastola txikia, familia handia garenez, langileok ez dugu krosaren festa galdu nahi. Goizeko 6:00etatik aurrera martxan jarriko gara dena prest egoteko!



**ZUEN PROPOSAMENAK
HONA BIDALI:
melvira@herriametsa.eus**